Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko irailaren 6a, asteazkena — 170 — Miércoles, a 6 de septiembre de 2017

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA

*Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen aldaketa. Behin betiko onespena.*

2017ko apirilaren 12an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, egindako ez-ohiko bilkuran onartutako aldaketekin.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen 35. artikuluan ezarritakoari jarraituz, kontuan hartuta estatutuen aldaketa tramitatu dela, aipatutako artikuluan gai honen inguruan aurreikusitako izapideak bete direla, eta entitate kon tsortziokideen gehiengo osoa ados dagoela, bidezkoa da Kontsortzioaren estatutuen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, egindako aldaketak barne hartuta.

Eta hala argitaratzen da, arauz ezarritakoa betez, eta guztiek beronen berri izan dezaten.

Hernani, 2017ko irailaren 5a.—José ignacio Asensio Baztera, presidentea. (6079)

### GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ESTATUTUAK

ARTIKULUEN AURKIBIDEA

I. kapitulua. Xedapen Orokorrak.
1. artikulua. Eraketa.
2. artikulua. Izena eta egoitza.
3. artikulua. Izaera juridikoa.
4. artikulua. Jarduteko lurralde eremua.
5. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.
6. artikulua. Kontsortzioaren indarraldia.
II. kapitulua. Xedea eta Araubide Juridikoa.
7. artikulua. Kontsortzioaren xedea.
8. artikulua. Xedearen garapena.
9. artikulua. Jardueraren kudeaketa.
III. kapitulua. Kontsortzioaren Gobernu Organoak.
10. artikulua. Egitura organikoa.
I. atala. Batzar Nagusia.
11. artikulua. Batzar Nagusia.
12. artikulua. Batzar Nagusiko kideak izendatzea.
13. artikulua. Batzar Nagusia berritzea.
14. artikulua. Batzar Nagusiaren bilkurak.
15. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.
II. atala. Presidentetza eta Presidenteordetza.
16. artikulua. Kontsortzioko presidentea.
17. artikulua. Presidentearen ahalmenak.
18. artikulua. Presidenteordea.

## CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA

*Modificación de los Estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa. Aprobación definitiva.*

Incluye las modificaciones aprobadas por la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en sesión extraordinaria celebrada el 12 de abril de 2017.

El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, de conformidad a lo dispuesto en los Estatutos del Consorcio, en su artículo 35, procede a la publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa del texto íntegro de sus estatutos con sus modificaciones, tras la tramitación de la modificación estatutaria, habiéndose cumplido los trámites a este respecto previstos en el señalado art. 35 y concurriendo el acuerdo favorable de la mayoría absoluta de Entes Consorciados.

Lo que se publica con carácter preceptivo y para general conocimiento.

Hernani, a 5 de septiembre de 2017.—El presidente, José Ignacio Asensio Bazterra. (6079)

### ESTATUTOS DEL «CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA»

ÍNDICE DE ARTÍCULOS

Capítulo I. Disposiciones Generales.
Artículo 1.º Constitución.
Artículo 2. Denominación y sede.
Artículo 3.º Naturaleza jurídica.
Artículo 4.º Ámbito territorial de actuación.
Artículo 5.º Organización y funcionamiento.
Artículo 6.º Vigencia del Consorcio.
Capítulo II. Objeto y Régimen Jurídico.
Artículo 7.º Objeto del Consorcio.
Artículo 8.º Desarrollo del objeto.
Artículo 9.º Gestión de la actividad.
Capítulo III. Órganos de Gobierno del Consorcio.
Artículo 10.º Estructura orgánica.
Sección I. De la Asamblea General.
Articulo 11.º Asamblea General.
Artículo 12.º Designación de los miembros de la Asamblea General.
Artículo 13.º Renovación de la Asamblea General.
Artículo 14.º Sesiones de la Asamblea General.
Artículo 15.º Facultades de la Asamblea General.
Sección II. De la Presidencia y Vicepresidencia.
Artículo 16.º Presidencia del Consorcio.
Artículo 17.º Facultades de la Presidencia.
Artículo 18.º Vicepresidencia del Consorcio.

EK\CV GAO-I-2017-06079

III. atala. Kontsortzioko langileak.

19. artikulua. Kontsortzioko langileak 12.

IV. kapitulua. Ekonomi, Zerga eta Kontratazio Erregimena.

I. atala. Erregimen Ekonomikoa.

20. artikulua. Araudi aplikagarria.

21. artikulua. Baliabide ekonomiko-finantzarioak.

22. artikulua. Kontsortzioaren finantzaketa.

23. artikulua. Kontsortzioaren ondarea.

24. artikulua. Aurrekontua onartzea.

25. artikulua. Kontabilitatea eta kontuen fiskalizazioa.

26. artikulua. Kontsortzio-erakundeen likidazioa.

27. artikulua. Aurrekontuaren likidazioa.

II. atala. Zerga Erregimena.

28. artikulua. Tarifa erregimena.

III. atala. Kontratazio Erregimena.

29. artikulua. Kontratazio erregimena.

V. kapitulua. Koordinazio Instituzionala.

30. artikulua. Jarraipen eta Koordinazio Batzordeak.

VI. kapitulua. Kontsortzioa handitzea, Kontsortziotik irtetea eta Kontsortzioa desegitea.

31. artikulua. Kontsortzioa handitzea.

32. artikulua. Kontsortziotik irtetea.

33. artikulua. Kontsortzioa desegitea.

34. artikulua. Desegiteko prozedura.

VII. kapitulua. Estatutuak aldatzea.

35. artikulua. Estatutuak aldatzea.

36. artikulua. Jarduerak mugatzeko klausulak.

Xedapen Gehigarriak.

Xedapen Iragankorrak.

Amaierako Xedapenak.

«GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN» ESTATUTUAK

Estatutu hauetan jasotzen diren mankomunitateek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa sortzea eta 2002-2016 eperako onartutako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko zehaztapenak praktikara eramatea erabaki dute, hain zuzen hiri hondakinen (HH) kudeaketa lan hori hobetzea lortzearren.

Kontsortzioaren jarduerek honako printzipio gidari hauek izango dituzte arau:

Progresibotasun printzipioa, Erakunde Publikoaren xede sozialarekin bat datozen helburuak lortzeko eginkizunetan ari diren beste erakunde publiko batzuk hartan sartzeko aukeratzat gauzatzen dena bera.

Koordinazio eta elkarlan printzipioa, hiri hondakinen kudeaketa hoberena ezartzen duen partaidetzazko sistematzat ulertua, eginkizun hauetan sartutako erakundeen eskumenekiko errespetu gorenaz eta erakundeen artean eginkizun proaktiboa betez eta irtenbideak ahalbidetuz.

Lurralde kohesioaren printzipioa, zuzentasun eta elkartasun printzipiorik oinarrizkoenen sintesitzat ulertua; honen ildotik, lurralde osoan zerbitzuaren prestazio maila baliokideak lortzea bilatuko da, baliabideetan eta hauen lurralde ezarpenean arrazionaltasun eraginkorraren eta iraunkortasunaren bidea jorratuz horretarako.

Sección III. Del personal del Consorcio.

Artículo 19. Personal del Consorcio.

Capítulo IV. Régimen Económico, Tributario y de Contratación.

Sección I. Régimen económico.

Artículo 20.º Normativa aplicable.

Artículo 21.º Recursos económico-financieros.

Artículo 22.º Financiación del Consorcio.

Artículo 23.º Patrimonio del Consorcio.

Artículo 24.º Aprobación del presupuesto.

Artículo 25.º Contabilidad y fiscalización de cuentas.

Artículo 26.º Liquidación con Entes Consorciados.

Artículo 27.º Liquidación del presupuesto.

Sección II. Régimen tributario.

Artículo 28.º Régimen de tarifas.

Sección III. Régimen de contratación.

Artículo 29.º Régimen de contratación.

Capítulo V. Coordinación institucional.

Artículo 30.º Comisiones de seguimiento y coordinación.

Capítulo VI. Ampliación, separación y disolución del Consorcio.

Artículo 31.º Ampliación del Consorcio.

Artículo 32.º Separación del Consorcio.

Artículo 33.º Disolución del Consorcio.

Artículo 34.º Procedimiento de disolución.

Capítulo VII. Modificación de Estatutos.

Artículo 35.º Modificación de Estatutos.

Artículo 36.º Cláusulas limitativas de las actividad.

Disposiciones Adicionales.

Disposiciones Transitorias.

Disposiciones Finales.

ESTATUTOS DEL «CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA»

Las mancomunidades, relacionadas en los presentes Estatutos, junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, han decidido la creación del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y la puesta en práctica de las determinaciones del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa, aprobado para el período 2002-2016, a fin de lograr la mejora en la citada gestión de los Residuos Urbanos (R.U.).

Las actividades del Consorcio se regirán por los siguientes principios inspiradores:

El principio de progresividad que se articula como la posibilidad de incorporación al Ente Público, de entidades públicas que persigan fines coincidentes con el objeto social de aquél.

El principio de coordinación y colaboración, entendido como un sistema participativo por el que se establece la óptima gestión de los Residuos Urbanos, con el máximo respeto hacia el ejercicio de las competencias de las entidades involucradas, ejerciendo un papel proactivo y facilitador de soluciones entre las mismas.

El principio de cohesión territorial, entendido como la síntesis de los más elementales principios de equidad y solidaridad que perseguirá unos niveles de prestación de servicios equivalentes para todo el territorio, con una racionalización eficiente, en términos de sostenibilidad, de los recursos y su implantación territorial.

EK\CV GAO-I-2017-06079

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Eraketa.*

1. Segidan aipatuko diren entitateek, beren borondatez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera erabaki dute Gipuzkoan sortutako hiri hondakinen bideraketa-sarea kudeatuko duen entitate publiko bat eratzea:

— San Marko mankomunitatea.

— Debabarreneko Eskualdeko mankomunitatea.

— Sasietako mankomunitatea.

— Txingudiko mankomunitatea.

— Debagoieneko mankomunitatea.

— Tolosaldeko mankomunitatea.

— Urola Kostako mankomunitatea.

— Urola-Erdia mankomunitatea.

2. Era berean, estatutu hauetan aurreikusitako prozedurarekin bat, beste erakunde batzuk ere sartu ahal izango dira, baldin eta Kontsortzioaren xedearekin bat datozen interes publikoko helburuak badituzte.

*2. artikulua. Izena eta egoitza.*

Horrela eratutako erakundea «Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa» izango da. Honen egoitza Hernanin egongo da, Etorluren Orbegozo eraikinean.

Batzar Nagusiak egoitza aldatzea onartuko izango du, estatutu hauek aldatu beharrik gabe.

*3. artikulua. Izaera juridikoa.*

1. Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketarako erakunde publikoa Kontsortzioa izango da. Izaera juridiko propioa izango du, eta bere helburuak bete ahal izateko jarduteko gaitasuna, indarrean dauden xedapenetan eta estatutu hauetan ezarritakoarekin bat. Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita geratzen da.

2. Kontsortzioak hainbat ahalmen izango ditu bere eginkizunak betetzeko, honakoak:

a) Erregelamenduak egiteko eta autoantolaketarako ahalmena.

b) Finantza eta zergetarako ahalmena, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzetan.

c) Programazio edo plangintza egiteko ahalmena; honetan sartzen da, halaber, azpiegiturak lurraldean kokatzeko proposamena, kasuan kasuko hirigintzako plangintza hor egongo bada ere, betiere.

d) Bere ondasunak ikertzeko, mugatzeko eta ofizioz berreskuratzeko ahalmena.

e) Bere ekintzen legitimitate presuntzioa, ekintza horiek betearaztekoak direlako presuntzioarekin batera.

f) Derrigorrez betearazteko eta zehatzeko ahalmena.

g) Bere ekintzak eta erabakiak ofizioz berrikusteko ahalmena.

h) Bere ondasun eta eskubideak bahitzerik eza legeetan aurreikusitako baldintzetan; Ogasun Publikoari bere kredituetarako aitortutako lehentasun eta hurrenkerak eta bestelako eskumenak, indarrean dagoen legediarekin bat, eta legedia aplikagarrian aurreikusten diren bestelako eskubideak.

3. Kontsortzioa onuradun izan daiteke lurralde mailako erakundeek izapidetzen dituzten desjabetze espedienteetan.

Horrelako kasuetan, desjabetuei ordaindu beharreko kalte-ordainen zenbatekoa Kontsortzioak ordainduko du.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º Constitución.*

1. Las entidades que se relacionan a continuación acuerdan, de forma voluntaria, junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa, la constitución de un ente público de gestión de residuos urbanos en alta de Gipuzkoa:

— Mancomunidad Municipal de San Marcos.

— Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.

— Mancomunidad Sasieta.

— Mancomunidad de Txingudi.

— Mancomunidad de Debagoiena.

— Mancomunidad de Tolosaldea.

— Mancomunidad Urola-Kosta.

— Mancomunidad Urola-Erdia.

2. Asimismo, de conformidad con el procedimiento previsto en los presentes Estatutos, podrán adherirse otras entidades siempre que persigan fines de interés público concurrentes con el objeto del Consorcio.

*Artículo 2.º Denominación y sede.*

El ente así constituido pasará a denominarse «Consorcio de Residuos de Gipuzkoa» y tendrá su sede en el edificio Orbegozo de Etorlur en Hernani.

El cambio de sede será aprobado por la Asamblea General, sin necesidad de modificar los presentes Estatutos.

*Artículo 3.º Naturaleza jurídica.*

1. El Ente Público para la Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa tendrá la naturaleza de Consorcio, disponiendo de personalidad jurídica propia y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, de acuerdo a lo establecido en las disposiciones vigentes y en los presentes Estatutos. El Consorcio queda adcsrito a la Diputación Foral.

2. El Consorcio dispondrá de las siguientes potestades para el ejercicio de sus funciones:

a) La potestad reglamentaria y de auto-organización.

b) La potestad financiera y tributaria, en los términos establecidos en la legislación vigente.

c) La potestad de programación o planificación, incluyendo la propuesta territorial de ubicación de infraestructuras, sin perjuicio de la planificación urbanística existente.

d) La potestad de investigación, deslinde y recuperación de oficio de sus bienes.

e) La presunción de legitimidad y ejecutividad en sus actos.

f) La potestad de ejecución forzosa y sancionadora.

g) La potestad de revisión de oficio de sus actos y acuerdos.

h) La inembargabilidad de sus bienes y derechos en los términos previstos en las Leyes; las prelaciones y preferencias y demás prerrogativas reconocidas a la Hacienda Pública para los créditos de la misma conforme a la legislación vigente y demás facultades previstas en la legislación de aplicación.

3. El Consorcio podrá ser beneficiario de expedientes de expropiación tramitados por Entidades de carácter territorial.

En estos casos, el importe de las indemnizaciones que haya que satisfacer a los expropiados será sufragado por el Consorcio.

EK\CV GAO-I-2017-06079

*4. artikulua. Jarduteko lurralde eremua.*

Kontsortzioak bertan sartutako mankomunitateek hartzen duten lurraldearen barnean garatuko du bere jarduera.

*5. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.*

2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoan, autonomia erkidegoko garapen araudian eta estatutu hauetan ezarritakoa izango ditu arau Kontsortzioak.

Araudi horretan xedatu gabeko kasuetan, eta Estatutuak banaketa, desegite, likidazio eta iraungitze eskubidearen araubideari buruz xedatu gabeko kasuetan, kode zibilean sozietate zibilari buruz xedatutakoa beteko da, likidazio araubidea izan ezik, zeren eta araubide juridiko aplikagarriak xedatutakoa beteko baita kasu horretan; edo bestela, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, xedatutakoa beteko da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, eta abenduaren 21eko 27/2013 Legeak, Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoak, tokiko kontsortzioei buruz xedatutako arauek izaera osagarria izango dute.

*6. artikulua. Kontsortzioaren indarraldia.*

Kontsortzioaren iraupen eta indarraldi epea mugagabea izango da. Dena den, desegin ahal izango da, estatutu hauetan ezarritako arrazoiak direnean eta prozedurari jarraiki betiere.

II. KAPITULUA

XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

*7. artikulua. Kontsortzioaren xedea.*

1. Kontsortzioaren helburu nagusia, bere lurralde eremuan hondakinen bideraketa-sarearen kudeaketa lanak egitea da; eginkizun hauen artean sartzen da, zehazki, GHHKPO 2002-2016 agirian aurreikusitako azpiegiturak –Kontsortzioan sartutako erakunde bati baino gehiagori zerbitzua eman diezaieketenak– sortzeko eta ustiatzeko jardueren multzoa; besteak beste, honakoak:

— «Errefusa» izenaz ezagutzen den zatiarentzako –hau da, saihesterik, birziklatzerik edo konpostatzerik izan ez diren hondakinentzako– Energia Berreskuratzeko Errausketa Plantaren diseinu, eraikuntza eta kudeaketa, zuzenekoa edo zeharkakoa delarik ere; baita Planta horren jarduerari zuzenean lotuta dauden eta beharrezkoak direla jotzen den bestelako instalazio guztiei dagokienez ere: zaborra enbalatzeko planta, geldialdietan zehar aldi baterako biltegiratu ahal izatearren; zepak heltzeko edota egonkortzeko planta; errauts hegalariak egokitzeko edota geldotzeko planta; hiri hondakinen erraustu aurretiko tratamendua egiteko planta, eta abar.

— Etxeetatik zein sortzaile handietatik iritsi eta gaika biltzen den materia organiko biodegradagarrirako behar diren konpostatze planten kokapen, diseinu, eraikuntza eta ustiapena.

— Azken tratamendurako (erraustea eta konpostatzea) plantetatik urrun dauden mankomunitateen eremuan hiri hondakinetarako behar diren transferentzia-guneen kokapen, diseinu, eraikuntza edota kudeaketa, zuzenekoa nahiz zeharkakoa, hondakinen «bideraketa-sarearen» kudeaketarekin lotutako prozesu guztietan; betiere, hirugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa kontuan hartuta, inolaz ere.

— Hiri hondakinen garraioa bera, transferentzia-estazioetatik azken tratamendurako (erraustea eta konpostatzea) plantetarainokoa edo, hala egokituz gero, zabortegirainokoa.

— Errauste prozesuetatik ateratzen diren hondakin eta errefusen (zepak, errauts hegalariak, ) edota konpostatze prozesuetatik ateratzen direnen tratamendua.

*Artículo 4.º Ámbito territorial de actuación.*

El Consorcio ejercerá su actividad en el territorio de las mancomunidades consorciadas.

*Artículo 5.º Organización y funcionamiento.*

El Consorcio se regirá por lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en la normativa autonómica de desarrollo y en los presentes Estatutos.

En lo no previsto en la citada normativa, ni en los presentes Estatutos sobre el régimen del derecho de separación, disolución, liquidación y extinción, se estará a lo dispuesto en el código civil, sobre la sociedad civil, salvo el régimen de liquidación, que se someterá a lo dispuesto en la normativa de régimen jurídico aplicable y en su defecto, en el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de Ley de Sociedades de Capital.

Las normas establecidas en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local y en la Ley 27/2013, de 21 de diciembre, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local sobre los consorcios locales, tendrán carácter supletorio.

*Artículo 6.º Vigencia del Consorcio.*

El plazo de duración y vigencia del Consorcio será indefinido sin perjuicio de su disolución por las causas y el procedimiento establecido en los presentes Estatutos.

CAPÍTULO II

OBJETO Y RÉGIMEN JURÍDICO

*Artículo 7.º Objeto del Consorcio.*

1. Constituye el objeto primordial del Consorcio, dentro de su ámbito territorial, la realización de la gestión en alta entendiendo por tal el conjunto de actividades para la creación y explotación de las infraestructuras previstas en el PIGRUG 2002-2016 así como las que se prevean en el siguiente PIGRUG que pueden dar servicio a más de un ente consorciado, y que comprende, entre otras las actuaciones siguientes:

— El diseño, construcción y gestión directa o indirecta de la Planta de Incineración con Recuperación Energética para la llamada fracción «resto», es decir, de aquellos residuos que no hayan podido ser evitados, reciclados o compostados, incluidas cuantas instalaciones directamente asociadas a la actividad de dicha Planta se consideren necesarias: planta de embalado de basura para su almacenamiento temporal en periodos de parada, planta de maduración-estabilización de escorias, planta de acondicionamiento-inertización de cenizas volantes, planta de pretratamiento de los R.U. previo a su incineración, etc.

— La ubicación, diseño, construcción y explotación de las plantas de compostaje que resulten precisas para la materia orgánica biodegradable recogida selectivamente, proveniente tanto del ámbito doméstico como del de los grandes generadores.

— La ubicación, diseño, construcción y gestión directa o indirecta de las estaciones de transferencia de residuos urbanos que resulten precisas en el ámbito de aquellas mancomunidades que se encuentren alejadas de las plantas de tratamiento final (incineración y compostaje), en todos aquellos procesos relacionados con la gestión en «alta» de los residuos, sin perjuicio de lo determinado en la disposición adicional tercera.

— El transporte propiamente dicho de los R.U. desde las estaciones de transferencia a las plantas de tratamiento final (incineración y compostaje) o, en su caso, a vertedero.

— El tratamiento de los residuos y rechazos derivados de los procesos de incineración (escorias, cenizas volantes,...) o de compostaje.

EK\CV GAO-I-2017-06079

2. Energia Berreskuratzeko Errausketa Plantaren diseinu eta eraikuntzak, eta konpostatze plantenak, errespetatu egin beharko ditu oinarrizko planteamenduak, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Debagoiena, Debabarrena, San Marko, Sasieta, Tolosaldea, Urola Erdialdea eta Urola Kostako mankomunitateek Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren etorkizunari buruz izenpetutako Lankidetza Hitzarmenean zehaztuak.

3. Kontsortzioak, horrela erabakitzen duenean, etxeko eraikuntza eta konponketa lan txikietatik datozen hondakin eta zaborretara zabaldu ahal izango du bere jarduera, Kontsortzioan sartutako erakundeetatik hori egitea eskatzen dutenen kasuan.

4. Kontsortzioak, horrela erabakitzen duenean, Kontsortzioarenak berarenak diren eskumenei dagokienez lankidetza hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu hiri hondakinen kudeaketan ari diren beste administrazio edo sozietate batzuekin, bere jardueran ahalik eta sinergiarik onenak lortzearren.

5. Kontsortzioak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa Eratzeko Lankidetza Hitzarmeneko seigarren eta zazpigarren baldintzetan jasotako obligazioak bete ondoren, eta horrela erabakitzen duenean, eskatzen duten kontsortzio-erakundeekiko lankidetza hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu, hiri hondakinen arloan dituzten kudeaketa eskumenak gauzatzen laguntzeko, baldin eta Batzar Nagusiak hori egitea onartzen badu 15. artikuluan aurreikusitako gehiengoaz. Hitzarmen hauek zuzenean ere egin ahal izango dira udalerriekin.

Kontsortzioak bermatu egingo du hiri hondakinen kudeaketarako zerbitzuen prestaziora zuzendutako lankidetza hitzarmenek Kontsortzioak berak laguntzen dion erakundearen kontura bideratzea laguntza horretatik ondorioztatzen diren kostu zuzen zein zeharkako guztiak. Era berean, bermatuko du kontsortzio-erakunde guztiek eskubidea izango dutela laguntza hori kontsortzio-erakundeetako edozeinentzat ezarritako baldintza berberetan hitzartzeko, erakundeen arteko berdintasun printzipioaren ildotik joz.

Bereziki, aipatutako lankidetza hitzarmen horien ondorioz Kontsortzioari kontsortzio-erakundeen kudeaketa-egituraren bat eskualdatzen bazaio, Kontsortzioa Eratzeko Hitzarmenaren zazpigarren baldintzan zehaztutako printzipioak errespetatuko dira.

6. Kontsortzioak, edonola ere, sentiberatze eta kontzientziatze kanpainak egin ahal izango ditu, eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez. Era berean Kontsortzioak, horrela erabakitzen duenean, hiri hondakinei lotutako sentiberatze eta kontzientziatze kanpaina orokorrak ere egin ahal izango ditu, Kontsortzioan sartutako erakundeek hori egitea eskatzen dutenean.

7. Edonola ere Kontsortzioak bere esku izango ditu hondakinen kudeaketatik ateratzen diren produktuak eta azpiproduktuak, produzitutako energia barne, eta egoki irizten dionean horiek guztiak merkaturatzera ere jo ahal izango du.

*8. artikulua. Xedearen garapena.*

Kontsortzioaren xedea garatzeko, bide hauek jorratuko dira:

1. Finantzaketa lortzea, Kontsortzioari emandako eginkizunak behar bezala kudeatzeko inbertsioak egitearren.

2. Kontsortzio barruan, hala egokituz gero, bideraketasareko edozein azpiegitura sortzea, hiritarrei zerbitzua ahalik eta eraginkortasunik handienaz eskaini ahal izateko xedeari loturik.

3. Jardueren prestazioa emateagatik edo gauzatzeagatik ezartzen diren tarifak onartzea; hauen bidez, eskainitako zerbitzuen kostua zerbitzu horien erabiltzaileen gain geratuko da.

4. Hiri hondakinei loturiko erakundeen eta kudeaketa jardueren arteko koordinazio sistema bat ezartzea.

2. El diseño y construcción de la Planta de Incineración con Recuperación Energética y de las plantas de compostaje deberá respetar los planteamientos básicos determinados en el Convenio de Colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de San Sebastián, y las Mancomunidades de Debagoiena, Debabarrena, San Marcos, Sasieta, Tolosaldea, Urola-Erdia y Urola-Kosta para la definición del futuro de la gestión de los residuos urbanos de Gipuzkoa.

3. El Consorcio, cuando así lo acuerde, podrá extender su actuación a los residuos y escombros procedentes de obras menores de construcción y reparación domiciliaria de los entes consorciados que así lo soliciten.

4. El Consorcio, cuando así lo acuerde, podrá suscribir Convenios de Colaboración con otras Administraciones o sociedades que gestionen residuos urbanos sobre las competencias encomendadas al Consorcio a fin de lograr las mejores sinergias en su ejercicio.

5. El Consorcio, cumplidos los requisitos determinados en las estipulaciones sexta y séptima del convenio de Colaboración para la Constitución del Convenio de Residuos de Gipuzkoa, y cuando así lo acuerde, podrá suscribir Convenios de Colaboración con los entes consorciados que así lo soliciten, para asistirles en el ejercicio de las competencias de gestión de R.U., siempre que la Asamblea General lo acuerde con la mayoría prevenida en el artículo 15. Estos Convenios también se podrán suscribir directamente con los Municipios.

Se garantizará por el Consorcio que los Convenios de Colaboración para la prestación de servicios de gestión de R.U. repercutan exclusivamente a la entidad a la que el Consorcio asista, todos los costos directos e indirectos derivados de la asistencia, así como el derecho de todos los entes consorciados a convenir tal asistencia en los mismos términos que los previstos para cualquiera de ellos, respetándose el principio de igualdad entre los mismos.

En particular, si como consecuencia de los señalados Convenios de Colaboración se trasladaran al Consorcio estructuras de gestión de los entes consorciados, se respetarán los principios determinados en la estipulación séptima del Convenio de Constitución del Consorcio.

6. El Consorcio, en cualquier caso, podrá realizar campañas de sensibilización y concienciación relacionadas con los servicios prestados. Asimismo, el Consorcio, cuando así lo acuerde, también podrá realizar Campañas Generales de sensibilización y concienciación relacionadas con los residuos urbanos, siempre que los entes consorciados así lo soliciten.

7. El Consorcio, en cualquier caso, dispondrá de los productos y subproductos derivados de la gestión de los residuos, inclusive de la energía producida y cuando lo estime oportuno podrá realizar actividades de comercialización de los mismos.

*Artículo 8.º Desarrollo del objeto.*

El objeto del Consorcio se desarrollará a través de:

1. La obtención de financiación para la realización de inversiones para la correcta gestión de las actividades encomendadas al Consorcio.

2. La creación en el seno del Consorcio, en su caso, de cualesquiera infraestructuras en alta relacionadas con el objeto de prestar el servicio con la mayor eficacia posible a los ciudadanos.

3. La aprobación de las tarifas que se establezcan por la prestación o realización de actividades, y que supongan la repercusión del costo de los servicios prestados a los usuarios de los mismos.

4. El establecimiento de un sistema de coordinación de los diversos entes y actividades de gestión con relación a los residuos urbanos.

EK\CV GAO-I-2017-06079

5. Kontsortzioari emandako jardueretarako azpiegitura berriak prestatu beharra zehaztuko duten azterketak egitea.

6. Bere xedeak betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak aurrera ateratzea.

*9. artikulua. Jardueraren kudeaketa.*

Kontsortzioaren zerbitzu prestazioaren kudeaketarako, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeak ezartzen dituen tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko formetakoren bat erabiliko da.

III. KAPITULUA

KONTSORTZIOAREN GOBERNU ORGANOAK

*10. artikulua. Egitura organikoa.*

Kontsortzioaren gobernu organoak hurrenak izango dira:

— Batzar Nagusia.

— Presidentetza eta presidenteordetza.

I. ATALA. Batzar Nagusia

*11. artikulua. Batzar Nagusia.*

1. Gobernu organo gorena da, eta berari dagokio garrantzi handieneko akordioak eta erabakiak hartzeko ahalmena.

2. Batzarrean mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundia egongo dira ordezkatuta, eta beste kontsortzio-erakundeak ere bai horrelakorik izanez gero.

3. Kontsortziokoak diren toki erakundeek Batzarrean izango duten ordezkaritza, boto haztatuaz eta erakunde horiei dagokien ehuneko osoaren barnean betiere, kontsortzio-erakundeetako biztanle kopuru osoarekiko horietako bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera kalkulatuko da; kalkulurako biztanle kopuruak Estatistika Institutu Nazionalak biztanleriari buruz argitaratutako azken datuak izango dira, eta kontuan hartuko da estatutu hauetako 12.3 artikuluan aurreikusitako hasierako ordezkaritza.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutu hauetako 12.3 artikuluan ezarritako ordezkaritza-ehunekoa izango du, eta kide den organoetan ehuneko horri dagokion boto kopurua izango du.

*12. artikulua. Batzar Nagusiko kideak izendatzea.*

1. Kontsortzioaren parte diren erakundeen ordezkariek osatzen dute Batzarra. Kide izendatu bakoitzeko ordezko bat hautatuko da, titularraren tokia betetzearren honek bere lekua hutsik lagaz gero. Ordezkatze hori bakar-bakarrik organo kolegiatuko kideen funtzio generikoetara iritsiko da, ez presidente, presidenteorde edo ordezkatuak izan dezakeen beste inolako funtzio espezifikotara.

2. Kontsortzio-erakunde bakoitzak hiru ordezkari eta hauei dagozkien ordezkoak izendatuko ditu, Batzarrean ahalik eta pluraltasunik handiena bermatzearren horrela, eta Kontsortzioari jakinarazi egingo dio izendapen akordioa. Batzarkidearen ordezkorik izendatu ez den kasuetan, beste korporaziokide bati esku eman dakioke, berariaz, bilkura jakin baterako; eta hori onartu egingo du Batzar Nagusiak, baldin eta ordezkaritza-idatzi izenduna aurkezten badu, kontsortzio-erakundearen idazkariak edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Araubide Juridikoko zuzendariak egiaztatuta betiere.

3. Kontsortzio-erakundeen ordezkaritza kontsortzio-erakundeek izendatzen dituzten hiru pertsonek eramango dute, edo hauen ordezkoek. Hasieran, dena den, erakunde bakoitzak boto kopuru bat edukiko du, ondoko eskalan jasotzen den bezala:

5. La realización de estudios que determinen la necesidad de introducir nuevas infraestructuras para las actividades encomendadas al Consorcio.

6. La ejecución de cuantas actividades sean precisas para el cumplimiento de sus fines.

*Artículo 9.º Gestión de la actividad.*

La gestión en la prestación de servicios por parte del Consorcio se realizará de acuerdo a alguna de las formas de gestión de los servicios públicos locales que establece la Ley de Bases de Régimen Local.

CAPÍTULO III

ÓRGANOS DE GOBIERNO DEL CONSORCIO

*Artículo 10.º Estructura orgánica.*

El Consorcio estará compuesto por los siguientes órganos de gobierno:

— Asamblea General.

— Presidencia y Vicepresidencia.

SECCIÓN I. De la Asamblea General

*Artículo 11.º Asamblea General.*

1. Es el órgano supremo de gobierno y al mismo le corresponden las facultades de adopción de acuerdos y decisiones de mayor trascendencia.

2. En la Asamblea estarán representadas las mancomunidades y la Diputación Foral de Gipuzkoa y, en su caso, el resto de entes consorciados.

3. La representación en la Asamblea, con voto ponderado, de los entes locales que formen parte del Consorcio se calculará, dentro del porcentaje total que corresponde a los mismos, conforme al número de habitantes de cada uno con respecto al número de habitantes total de los entes consorciados, que se calculará de acuerdo con las últimas cifras oficiales de población publicadas por el Instituto Nacional de Estadística, teniendo en cuenta la representación inicial prevista en el artículo 12.3 de los presentes Estatutos.

4. La Diputación Foral de Gipuzkoa estará representada en todo caso con el porcentaje establecido en el artículo 12.3 de los presentes Estatutos y le corresponderá en los órganos en los que forme parte un número de votos igual a dicho porcentaje.

*Artículo 12.º Designación de los miembros de la Asamblea General.*

1. La Asamblea se integra por los representantes de los entes que formen parte del Consorcio. Para cada miembro designado se elegirá un suplente que pudiera suplir la vacante de su titular. La sustitución sólo alcanzará a las funciones genéricas de miembros del órgano colegiado, no a las específicas de Presidente, Vicepresidente o cualquiera otra que pudiera concurrir en el sustituido.

2. Cada ente consorciado designará tres representantes y sus respectivos sustitutos, garantizando la máxima pluralidad de representación en la Asamblea, notificando dicho acuerdo de nombramiento al Consorcio. Para aquellos supuestos que no se hubiere designado sustituto de asambleísta, cabe la delegación expresa para una sesión concreta, en otro miembro de la corporación, que será admitido en la Asamblea General, siempre que aporte escrito de delegación nominativo, certificado por el Secretario del Ente Consorciado, o por el Director de Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. La representación de las entidades consorciadas recaerá en las tres personas designadas por los entes consorciados, o por sus sustitutos, correspondiendo inicialmente a cada entidad un número de votos de acuerdo a la siguiente escala:


EK\CV GAO-I-2017-06079

| *Kontsortzio-Erakundeak<br>Entidades Consorciadas* | *Erakundearen Ordezkaritza<br>Representación de la Entidad<br>(%)* | *Ordezkariei Esleitutako Botoak<br>Votos Atribuidos A los Representantes* | | |
|---|---|---|---|---|
| | | *1. zenbakia<br>Núm. 1* | *2. zenbakia<br>Núm. 2* | *3. zenbakia<br>Núm. 3* |
| Gipuzkoako Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Gipuzkoa | 33 | 11.0 | 11.0 | 11.0 |
| San Markosko Udal Mankomunitatea<br>Mancomunidad Municipal de San Marcos | 29 | 9.8 | 9.6 | 9.6 |
| Debabarreneko Eskualdeko Mankomunitatea<br>Mancomunidad Comarcal de Debabarrena | 7 | 2.4 | 2.3 | 2.3 |
| Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea<br>Mancomunidad de Servicios de Txingudi | 7 | 2.4 | 2.3 | 2.3 |
| Sasietako Mankomunitatea<br>Mancomunidad de Sasieta | 6 | 2.0 | 2.0 | 2.0 |
| Debagoieneko Mankomunitatea<br>Mancomunidad de Debagoiena | 6 | 2.0 | 2.0 | 2.0 |
| Tolosaldeko Mankomunitatea<br>Mancomunidad de Tolosaldea | 5 | 1.8 | 1.6 | 1.6 |
| Urola Kostako Mankomunitatea<br>Mancomunidad Urola Kosta | 4 | 1.4 | 1.3 | 1.3 |
| Urola Erdialdeko Mankomunitatea<br>Mancomunidad Urola Erdia | 3 | 1.0 | 1.0 | 1.0 |
| GUZTIRA / TOTAL | 100 | | | |

4. Kontsortzio-erakundeen hiru ordezkarietako bakoitzari botoen ehuneko bat dagokio, ordezkatzen duen erakundeari ematen zaion boto haztatuaren heren baten baliokidea zehazki. Kontsortzio-erakunde bati atxikitako boto haztatuaren ehunekoa hirutan zatitu eta honen emaitza zenbaki osoa ez denean, zenbaki osoa eta lehen dezimala hartuko dira; beraz, ordezkari bakoitzaren boto haztatuak dezimal bakarra edukiko du. Ordezkariei horrela atxikitakoaren eta kontsortzio-erakundeari dagokion botoen ehunekoaren artean sortutako dezimal aldea kontsortzio-erakundeak berak erabakitzen duen ordezkariari atxikiko zaio.

5. Toki erakundeak berritzearen ondorioz kontsortzio-erakundeetako organoak eratu behar diren bakoitzean, mankomunitate bakoitzari atxikitako ordezkaritza-ehunekoa eguneratu egingo da. Ehuneko horrek ez du inolako dezimalik izango.

6. Toki erakundeen ordezkariek, agintaldia amaitu zaiela eta, bere karguak uzten dituztenean, Kontsortzioan duten postua mantenduko dute, harik eta kontsortzio-erakundeek ordezkari berriak izendatzen dituzten arte.

*13. artikulua. Batzar Nagusia berritzea.*

1. Udal hauteskundeak egin ostean kontsortzio-erakundeak berritu eta gero, hauek hogeita hamar eguneko epea izango dute Kontsortzioaren Batzar Nagusian izango dituzten ordezkariak izendatzeko.

2. Bien bitartean, eta ordezkari berriak izendatu ezean, Kontsortzioko kide diren baina kargua utzia duten erakundeetako ordezkariek jarraituko dute Batzar Nagusiko kide gisa.

*14. artikulua. Batzar Nagusiaren bilkurak.*

1. Batzar Nagusiaren kideak presidente karguan den pertsona, presidenteorde karguan dena eta kontsortzio-erakundeen ordezkariak izango dira. Kontsortzioaren idazkaria ere batzarkide izango da, hitz egiteko eskubideaz baina botorik gabe. Egoki irizten zaien teknikariak ere bilkuretara joan ahal izango dira, hitz egiteko eskubideaz baina botorik gabe.

4. A cada uno de los tres representantes de los entes consorciados le corresponderá un porcentaje de voto equivalente a la tercera parte del voto ponderado que se atribuya al ente al que representa. Cuando el resultado de dividir entre tres el porcentaje de voto ponderado atribuido a un determinado ente consorciado no sea un número entero, se tomará el número entero y el primer decimal, por lo que el voto ponderado de cada representante tendrá finalmente un único decimal. La diferencia decimal de porcentaje de voto existente entre la así atribuida a los representantes y la correspondiente a la entidad consorciada, se atribuirá a aquel de los representantes que así lo hubiera decidido el ente consorciado.

5. Cada vez que deban de constituirse los órganos de los entes consorciados como consecuencia de la renovación de las Corporaciones Locales, se actualizará el porcentaje de representación asignado a cada Mancomunidad. Dicho porcentaje no tendrá ningún decimal.

6. Cuando los representantes de las entidades locales cesen en sus cargos debido al término de sus mandatos, éstos mantendrán su puesto en el Consorcio hasta que los entes consorciados procedan a la designación de sus nuevos representantes.

*Artículo 13.º Renovación de la Asamblea General.*

1. Una vez renovadas las entidades consorciadas por la celebración de las elecciones locales, aquéllas deberán proceder en el plazo de treinta días a la designación de sus representantes en la Asamblea General del Consorcio.

2. Mientras tanto, y en caso de que no se designen los nuevos representantes, continuarán como miembros de la Asamblea General los representantes cesantes de las entidades que forman el Consorcio.

*Artículo 14.º Sesiones de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General estará constituida por la persona que ejerza la Presidencia, por quien ejerza la Vicepresidencia y por la representación de las entidades consorciadas. También formará parte de la Asamblea el Secretario o Secretaria del Consorcio, con voz pero sin voto. El personal técnico que se estime conveniente podrá asistir a las sesiones, con voz pero sin voto.

EK\CV GAO-I-2017-06079

2. Batzar Nagusia biltzeko, deialdia egin beharko da aurrez. Presidenteak Kontsortzioa eratu eta lehen urtean zehar hilean behin egin beharko du ohiko batzarrerako deialdia, eta sei hilean behin hurrengo urteetan. Deialdia, gutxienez, bilkura baino bi egun balioduneko aurretiaz egingo da.

3. Aparteko kasuetan, presidente lanetan ari den pertsonak Batzar Nagusiaren egoki iritzi adina bilkura deitu ahal izango ditu, Deialdia, gutxienez, bilkura baino bi egun balioduneko aurretiaz egingo da.

Presidente lanean ari den pertsonak Batzarrerako deia egingo du, era berean, kasuan kasuko gobernu organoek aurrez onartu eta bi kontsortzio-erakundek eskatzen dutenean; kasu honetan, gai-zerrendan sartu beharko ditu batzarra egitea eskatu duten kontsortzio-erakundeek eskatzen dizkioten puntuak. Horrelakoetan, presidenteak erabaki ahal izango du Batzarra atzeratzea hurrengo Ohiko Batzarra egitea dagokion arte; eta azken honetako gai-zerrendan jaso egin beharko ditu bi kontsortzio-erakundeek eskatutako puntuak.

4. Batzar Nagusiaren presidente lanean ari denak aparteko premiazko bilkurak deitu ahal izango ditu gaiaren premiak horrelakorik eskatzen duenean.

Kasu honetan, gai-zerrendako lehen aztergaia Batzar Nagusiak gaiaren premiari buruz hartu beharreko erabakia izango da. Organo horrek ez badu premiari buruzko erabaki hori hartzen, bilkura amaitutzat emango dute hurrena, eta ez da inolako akordiorik hartzerik izango.

Era berean, bilkura egiteko aukera egongo da, batzarkide guztiak bertan daudela aho batez hala erabakitzen dutenean.

5. Edonola ere, deialdiaren iragarpenak bileraren data, tokia, ordua eta aztertu behar diren gai guztiak jaso beharko ditu. Ezin izango da erabakirik hartu gai-zerrendan berariaz jasota ez dauden gaiei buruz, legezko kide kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoaz organoak aurrez gaiaren premia erabakitzen duenean izan ezik.

6. Batzarraren bilkurak baliozkoak izan daitezen, lehen deialdian batzarkideetatik erdia gehi bat beharko dira, eta hauek gainera botoetatik erdia gehi bat izan beharko dituzte; bigarren deialdian, berriz, botoetatik erdia gehi bat beharko da, kide kopurua dena dela, baina gutxienez hiru kide bertaratu badira. Gainera, presidentearen edo presidenteordearen eta idazkariaren edo honen legezko ordezkariaren asistentzia derrigorrezkoa izango da.

7. Batzarraren bilkurak eta hartzen dituen erabakiak idazkariak idatziko duen akta batean jasoko dira. Presidente lanean ari denak eta idazkariak sinatu egingo dituzte aktak, onartu ondoren, eta dagokien Akta Liburuan transkribatuko dira hurrena.

*15. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.*

1. Batzar Nagusiaren ahalmenak honakoak izango dira:

a) Kontsortzio-erakundeak onartzea, kontsortzio-erakunde bakoitzaren boto kopurua finkatzea, eta horiek kanpo uztea 32.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

b) Estatutuak eta egoitza soziala aldatzea.

c) Kontsortzioa desegitea 33. artikuluan azaltzen diren arrazoien indarrez.

d) Zerbitzuak kudeatzeko moduak onartzea.

e) Kontsortzioaren arau gisa ezartzen diren erregelamendu edo barne araudiak onartzea, 30. artikuluan aurreikusitako jarraipen eta koordinazio batzordeen eraketa, osaketa eta barne erregimeneko erregelamenduarekin batera, hala egokituz gero.

2. La Asamblea General se reunirá previa convocatoria. El Presidente deberá convocar la asamblea con carácter ordinario con una periodicidad mensual el primer año desde la constitución del Consorcio, y semestralmente en los años posteriores. La convocatoria se efectuará con una antelación no inferior a dos días hábiles a la celebración de la sesión.

3. De forma extraordinaria, la persona que ejerza la Presidencia podrá convocar cuantas sesiones de la Asamblea General estime oportuno, convocándola con una antelación no inferior a dos días hábiles a la celebración de la sesión.

La persona que ejerza la Presidencia, también convocará la Asamblea, cuando lo soliciten, previa aprobación de los órganos de gobierno respectivos, dos de los entes consorciados, debiendo en este caso incluir en el orden del día aquellos puntos que le fueren solicitados por los entes consorciados que soliciten la celebración de la asamblea. La Presidencia podrá decidir en este caso diferir la celebración de la Asamblea hasta que proceda la siguiente Asamblea Ordinaria, debiendo incluir en el orden del día de esta los puntos solicitados por los dos entes consorciados.

4. Se convocarán sesiones extraordinarias de carácter urgente por quien ejerza la Presidencia de la Asamblea General cuando la urgencia del asunto lo exija.

En este caso deberá incluirse como primer asunto del Orden del día el pronunciamiento de la Asamblea General sobre la urgencia. Si ésta no fuera apreciada por dicho órgano se levantará acto seguido la sesión, sin que pueda adoptarse acuerdo alguno.

Asimismo, se podrá celebrar sesión cuando estando presentes todos los miembros de la Asamblea así se decida por unanimidad de los mismos.

5. En todo caso, el anuncio de la convocatoria deberá indicar la fecha de la reunión, el lugar, hora y todos los asuntos que vayan a tratarse. No podrán adoptarse acuerdos sobre asuntos que no aparezcan expresamente consignados en el orden del día, salvo supuestos de urgencia apreciada previamente por el órgano con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros.

6. Para la válida celebración de las sesiones de la Asamblea se exigirá, en primera convocatoria, la mitad más uno de los miembros de la Asamblea que además supongan la mitad más de uno de sus votos y en segunda convocatoria la mitad más uno de sus votos, cualquiera que sea el número de miembros siempre que al menos asistan tres miembros. Además será preceptiva la asistencia del Presidente o Vicepresidente y del Secretario/a o sustituto legal.

7. Las sesiones y acuerdos adoptados por la Asamblea serán recogidos en un acta redactada por el Secretario o Secretaria. Las actas una vez aprobadas serán firmadas por quien ejerza la Presidencia y el Secretario o Secretaria y se transcribirán al Libro de Actas correspondiente.

*Artículo 15.º Facultades de la Asamblea General.*

1. La Asamblea General dispondrá de las siguientes facultades:

a) Admisión de los entes consorciados, fijando el número de votos de cada ente consorciado, así como separación de los mismos en los casos previstos en el artículo 32.2.

b) Modificación de los Estatutos y cambio de sede social.

c) Disolución del Consorcio por los motivos expuestos en el artículo 33.º.

d) La aprobación de las formas de gestión de los servicios.

e) Aprobación de los reglamentos o normativa interna que se establezcan como norma del Consorcio, y en su caso la constitución, composición y el reglamento de régimen interno de las comisiones de seguimiento y coordinación previstas en el art. 30.

f) Aurrekontua, honen gauzatze oinarriak eta Kontu Orokorra onartzea, kontsortzio-erakundeak ondarea besterentzeko eta eskuratzeko jarduerekin batera.

g) Kontsortzio-erakundeen ekarpen erregimena zehazten duten erregelak onartzea. Edonola ere, kontsortzio-erakundeen ekarpenak batzarrean duten ordezkaritza-ehunekoarekiko proportzioan egongo dira, Bigarren Xedapen Iragankorrean xedatutako salbuespen kasuan izan ezik.

h) Kreditu eragiketak kontratatzea.

i) Presidentea eta presidenteordea izendatzea eta kargutik kentzea.

j) Ematen den zerbitzu mota bakoitzari aplika dakiokeen tarifa erregimena finkatzea.

k) Estatutu hauetako 7.4 eta 7.5 artikuluetan aurreikusten diren hiri hondakinak kudeatzeko beste administrazio edo sozietate batzuekiko akordio edo lankidetza hitzarmenak onartzea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa Eratzeko Lankidetza Hitzarmeneko seigarren eta zazpigarren baldintzetan aurreikusitako mugaz.

l) Kontsortzioaren funtzionamendu eraginkorrerako egoki irizten dien batzordeak sortzea.

m) Plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea.

n) Obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea jardueraren kudeaketa hoberako: kontratazio horrek 30.000 €tik gorako gastua dakarrenean zerbitzu eta horniduren kontratazioaren kasuan, 60.000 €tik gorakoa aholkularitza eta laguntza kontratuen kasuan, eta 120.000 €tik gorakoa obren kasuan.

o) Hiri Hondakinen kudeaketa eta tratamendurako mankomunitateek Kontsortzioari egindako azpiegituren transferentzia onartzea, Laugarren Xedapen Iragankorrean eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzetan.

p) Likidazio kontua onartzea Kontsortzioko kideren bat kanpoan geratuz gero.

q) Kontsortzioaren interesak defendatzeko bidezkoak diren ekintza judizial eta administratiboak abiatzeko erabakia hartzea.

r) Onarpenerako gehiengo berezia eskatzen dutela-eta udalerrietan udalbatzari dagozkion bestelako eskumenak.

s) Legeek udalbatzei berariaz ematen dizkieten bestelakoak.

2. Batzarreko akordioak, oro har, bertan diren kideen botoen gehiengo sinpleaz hartuko dira, a), b), c), d), e), f), g), i), j), k), o) eta p) puntuei buruzko akordioen kasuan izan ezik, horrelakoak onartzeko boto eskubidea duten kideen botoen gehiengo absolutua beharko baita. Kasu hauetan, f) puntuan aurreikusitakoan izan ezik, kontsortzio-erakundeen gehiengo absolutuak aldeko botoa eman beharko du gainera. Ondorio hauetarako, ulertuko da kontsortzio-erakundeek boto bana dutela, eta kontsortzio-erakunde bakoitzaren botoa bere hiru ordezkarien artean gehiengoa ateratzen duena izango da. Kontsortzio-erakunde baten ordezkarien arteko boto kontaketak berdinketa ematen badu, mankomunitate horren botoa abstentziotzat hartuko da.

3. artikulu honetan aurreikusten diren gehiengoak handitu egingo dira, kontsortzio-erakundeek erabakia aho batez hartzea eskatuko da alegia, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa Eratzeko Lankidetza Hitzarmeneko bigarren, seigarren eta zazpigarren estipulazioetan jasotako baldintzak gainditzen badira.

f) Aprobación del Presupuesto, sus bases de ejecución y la Cuenta General, así como las actividades de enajenación y adquisición de patrimonio por parte del ente consorcial.

g) Aprobación de las reglas que determinen el régimen de aportaciones de los entes consorciados. En cualquier caso, las aportaciones de los entes consorciados deberán ser proporcionales al porcentaje de su representación en la asamblea, salvo lo dispuesto en la disposición transitoria segunda.

h) Contratación de las operaciones de crédito.

i) Nombramiento y cese de las personas que ejerzan la Presidencia y Vicepresidencia del Consorcio.

j) Establecimiento del régimen de tarifas aplicable a cada tipo de servicio prestado.

k) Aprobación de acuerdos o convenios de colaboración con otras Administraciones o sociedades que gestionen residuos urbanos previstos en los artículos 7.4 y 7.5 de los presentes Estatutos con el límite prevenido en las estipulaciones sexta y séptima del Convenio de Colaboración para la constitución del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

l) Creación de las comisiones que estime necesarias para el eficaz funcionamiento del Consorcio.

m) Aprobación de la plantilla y de la relación de puestos de trabajo.

n) Contratación de obras, servicios y suministros para la mejor gestión de la actividad, cuando dicha contratación suponga un desembolso superior a 30.000 € en el caso de contratación de servicios y suministros, 60.000 € en el caso de contratos de consultoría y asistencia y 120.000 € en el caso de obras.

o) La aceptación de la transferencia de infraestructuras por parte de las Mancomunidades al Consorcio, para la gestión y tratamiento de Residuos Urbanos, en los términos establecidos en la Disposición Transitoria Cuarta y en la Disposición Adicional Tercera.

p) Aprobación de la cuenta de liquidación en caso de separación de uno los miembros del Consorcio.

q) Acordar el ejercicio las acciones judiciales y administrativas pertinentes para la defensa de los intereses del Consorcio.

r) Aquellas otras atribuciones que en los Municipios corresponda al Ayuntamiento Pleno por exigir su aprobación una mayoría especial.

s) Las demás que expresamente le confieren las Leyes al Pleno de los Ayuntamientos.

2. Los acuerdos de la Asamblea se adoptarán, por regla general, por mayoría simple de los votos de los miembros presentes, excepto en los acuerdos relativos a los puntos a), b), c), d), e), f), g), i), j), k), o) y p) para cuya aprobación se requerirá mayoría absoluta de los votos de los miembros con derecho a voto. En estos supuestos, con excepción del prevenido en el punto f), se requerirá además el voto favorable de la mayoría absoluta de los Entes consorciados, considerándose a estos efectos que cada Ente consorciado dispone de un voto, computándose éste en función del que hayan ejercido la mayoría de sus tres representantes. Si el cómputo de votos de los representantes de un ente consorciado presentara un empate, se estimará voto de la Mancomunidad como abstención.

3. Las mayorías prevenidas en este artículo se incrementarán exigiendo unanimidad de los entes consorciados si superan condiciones determinadas en las estipulaciones segunda, sexta y séptima del Convenio de Colaboración para la Constitución del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

II. ATALA. Presidentetza eta Presidenteordetza

*16. artikulua. Kontsortzioko presidentea.*

1. Presidente karguan ariko den pertsona, Batzar Nagusian ere buru lana beteko duena, Batzar Nagusian ordezkatuta dauden kontsortzio-erakundeetako ordezkarien artetik hautatuko da.

2. Presidente kargua izango duen pertsona hautatzeko, 15.2 artikuluan zehaztutako gehiengoa beharko da, derrigorrean.

3. Pertsona bat presidente kargutik kentzeko, izendatzeko behar zen derrigorrezko gehiengo bera beharko da.

4. Udal hauteskundeen ondotik kontsortzio-erakundeek izendatutako ordezkari berriek parte hartu eta ordezkarien artetik presidente berria izendatzen duten ohiko batzarrean, aurreko presidenteak kargua utziko du.

*17. artikulua. Presidentearen ahalmenak.*

Presidentearen ahalmenak honakoak dira:

1. Kontsortzioaren barne zein kanpo ordezkaritza gorena izatea.

2. Batzar Nagusiaren bilkurak deitzea, bertan behera uztea eta amaitutzat ematea, eta horietan buru lana egitea, eztabaidak zuzentzea eta bere kalitate botoaz berdinketak erabakitzea.

3. Batzar Nagusian hartutako erabakiak argitaratzea eta gauzatzea.

4. Kontsortzioaren interesen defentsarako bidezkoak diren ekintza judizial eta administratiboak abian jartzea erabakitzea, bere eskumeneko arloetan eta, premiazko egoerak direnean, baita Batzarraren eskumeneko arloetan ere.

5. Pertsonala kontratatzeko oinarriak eta pertsonala izendatzea onartzea.

*18. artikulua. Presidenteordea.*

1. Presidenteorde eginkizunetan arituko da, 15.2 artikuluak zehazten duen derrigorrezko gehiengoaz izendatutako pertsona.

2. Presidenteorde eginkizunetan ari den pertsonak presidentea ordezkatuko du honek kargua uzten badu, falta bada edo gaixorik badago, presidenteak bere jarduerarako esku ematen dion guztietan bezalaxe.

3. Kargutik kentzeko erabakia hartzeko, izendapenerako behar zen gehiengo bera beharko da; batek kargua uzten duen saio berean ordezkoa izendatuko da.

4. Udal hauteskundeen ondotik kontsortzio-erakundeek izendatutako ordezkari berriek parte hartu eta ordezkarien artetik presidenteorde berria izendatzen duten lehen ohiko batzarrean, aurreko presidenteordeak kargua utziko du.

5. Presidente eta presidenteordea ezin izango dira kontsortzio-erakunde berekoak izan. Kargu biak aldi berean hutsik baldin badaude, Batzar Nagusiko kide zaharrenak beteko du presidente postua aldi baterako; eta presidenteorde lanean, adinez hurrengoa arituko da, betiere aipatu berriko ezintasuna harturik aintzat.

III. ATALA. Kontsortzioko langileak

*19. artikulua. Kontsortzioko langileak.*

Kontsortzioko langileak Kontsortzioko kide diren administrazioetako funtzionarioak edo lan-kontratudun langileak izango dira, ezargarria den araudian aurreikusitako salbuespenez.

Kontsortzio-erakundeetako funtzionario batek beteko ditu idazkari eginkizunak.

SECCIÓN II. De la Presidencia y Vicepresidencia

*Artículo 16.º Presidencia del Consorcio.*

1. La persona que ejerza la Presidencia del Consorcio, que la ejercerá también respecto de la Asamblea General, será elegida de entre los representantes de las entidades consorciadas representadas en la Asamblea General.

2. Para la elección de la persona que ejerza la Presidencia se exigirá preceptivamente la mayoría determinada en el art. 15.2.

3. Para el cese en el ejercicio de la Presidencia se requerirá la mayoría preceptiva para su nombramiento.

4. La Presidencia cesará en el momento en que se celebre la primera asamblea ordinaria tras las elecciones municipales en la que participen los nuevos representantes designados por los entes consorciados y se designe la nueva Presidencia entre los representantes.

*Artículo 17.º Facultades de la Presidencia.*

Son facultades de la Presidencia:

1. Ejercer la máxima representación, tanto interna como externa, del Consorcio.

2. Convocar, presidir, suspender y levantar, así como dirigir las deliberaciones y dirimir los empates con su voto de calidad de las sesiones de la Asamblea General.

3. Publicar y ejecutar las decisiones adoptadas en la Asamblea General.

4. Acordar el ejercicio de las acciones judiciales y administrativas pertinentes para la defensa de los intereses del Consorcio en materias de su competencia, y en caso de urgencia, en materias competencia de la Asamblea.

5. Aprobación de las bases de contratación de personal y el nombramiento de personal.

*Artículo 18.º Vicepresidencia del Consorcio.*

1. Ejercerá las funciones de Vicepresidencia la persona designada con la mayoría que determina preceptivamente el art. 15.2.

2. Quien ejerza las funciones de Vicepresidencia sustituirá a la persona que ejerza la Presidencia en caso de vacante, ausencia o enfermedad, y en todas las ocasiones en que ésta última delegue en aquélla su actividad.

3. El cese en el ejercicio de la Vicepresidencia deberá aprobarse por la mayoría requerida para su nombramiento, designándose en la misma sesión su sustituto.

4. La Vicepresidencia cesará en el momento en que se celebre la primera asamblea ordinaria tras las elecciones municipales en la que participen los nuevos representantes designados por los entes consorciados, en la que se proceda a la elección de una nueva Vicepresidencia entre los representantes.

5. Los cargos de Presidente y Vicepresidente no podrán recaer en representantes de un mismo ente consorciado. Si estuvieran vacantes simultáneamente ambos cargos, ejercerá de Presidente interinamente el miembro de la Asamblea General de más edad y de Vicepresidente el siguiente en edad manteniendo la excepción anterior.

SECCIÓN III. Personal del Consorcio

*Artículo 19 Personal del Consorcio.*

El Personal del Consorcio deberá ser personal funcionario o laboral de las Administraciones consorciadas, con las excepciones previstas en la normativa de aplicación.

Actuará de secretario o secretaria un funcionario o funcionaria procedente de los entes consorciados.

EK\CV GAO-I-2017-06079

Kontsortzioa unean-unean atxikita dagoen administrazio publikoko kontu-hartzaileetzan lan egiten duen pertsona batek izan beharko du kontu-ikuskatzaile. Kontsortzioaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren barne-kontrola egiteko ardura izango du.

Kontsortzioak letradu aholkulari bat eduki ahal izango du, eta horren ardura izango da dagokion lege aholkularitza ematea Kontsortzioari, eta epaiketetan Kontsortzioa ordezkatu eta defendatzea. Kontsortzioko langilea izan daiteke, eta kontsortzio-erakundeetakoa izan daiteke, ala ez. Kontsortzio-erakundeetatik ez badator, Kontsortzioa atxikita dagoen administrazioko organo eskudunaren baimena beharko du. Era berean, aldez aurretik justifikatuta beharrezkoa dela, kanpo bitartekoen bidez bete ahal izango da lanpostu hori.

IV. KAPITULUA

EKONOMI, ZERGA ETA KONTRATAZIO ERREGIMENA

I. ATALA. Erregimen ekonomikoa

*20. artikulua. Araudi aplikagarria.*

Araudi aplikagarrian xedatutakoaren esparruan, Estatutu hauetan zehaztutako bitarteko eta betebeharrek osatuko dute Kontsortzioren Ogasuna.

Edonola ere, bera atxikita dagoen administrazio publikoaren aurrekontu, kontabilitate eta kontrol erregimenari lotuta egongo da Kontsortzioa, betiere apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, xedatutakoa betetzea eragotzi gabe.

*21. artikulua. Baliabide ekonomiko-finantzarioak.*

Kontsortzioaren baliabide ekonomiko-finantzarioak honakoak izango dira:

1. Kontsortzioaren ondarea.

2. Kontsortzio-erakundeen ekarpenak, bai ondarezkoak bai diruzkoak.

3. Estatutik, Autonomia Erkidegotik edo beste edozein erakunde publiko edo pribatutik jasotzen dituen diru-laguntzetatik datozen sarrerak.

4. Kasuan kasuko finantza erakundeekin egiten diren kreditu eragiketak.

5. Kontsortzioaren xede diren hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuen prestaziotik datozen sarrerak.

6. Estatutu hauetako 7-4., 7-5. eta 15.k) artikuluek aipatzen dituzten Lankidetza Hitzarmenetan finkatutako zehaztapenetatik datozen sarrerak.

7. Hondakinen kudeaketatik eratorritako produktu eta azpiproduktuak –produzitutako energia barne– merkaturatzetik sortzen direnak.

8. Kontsortzio-erakundeei eskatu ahal izango zaizkien beharrezko ekarpenak, beste finantzaketa mekanismo batzuen bidez estaltzerik izan ez den gastuak estaltzekoak.

9. Eslei dakiokeen beste edozein.

Kontsortzioaren zorpetze eragiketek bera atxikita dagoen administrazioaren aurretiko baimena beharko dute.

*22. artikulua. Kontsortzioaren finantzaketa.*

Kontsortzioaren eraketa eta funtzionamendurako behar diren ekarpenak Batzar Nagusian duten ordezkaritza-ehunekoaren proportzioan ordainduko dituzte kontsortzio-erakundeek; salbuespen bakarra estatutu hauetako Bigarren Xedapen Iragankorreko bigarren paragrafoan jasotzen den konpromisoa izango da.

El interventor o interventora deberá ser personal al servicio del área de Intervención de la Administración pública a la que esté adscrito el Consorcio en cada momento. Le corresponderá la función de control interno de la gestión económica financiera del Consorcio.

El Consorcio podrá contar con un Letrado Asesor a quién competerá el asesoramiento legal preceptivo y la defensa y representación en juicio de los intereses del Consorcio. Podrá formar parte del personal del Consorcio, procedente o no de los entes consorciados. Si no lo fuera, requerirá de la autorización del órgano competente de la administración de Adscripción. Asimismo, previa justificación de su necesidad, su provisión se podrá realizar con medios externos.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN ECONÓMICO, TRIBUTARIO Y DE CONTRATACIÓN

SECCIÓN I. Régimen económico

*Artículo 20.º Normativa aplicable.*

La Hacienda del Consorcio estará constituida, en el marco de lo establecido en la normativa de aplicación, por los recursos y obligaciones previstos en los presentes Estatutos.

El Consorcio, en todo caso, estará sujeto al régimen de presupuestación, contabilidad y control de la Administración pública a la que esté adscrito, sin perjuicio de su sujeción a lo previsto en la LeyOrgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

*Artículo 21.º Recursos económico-financieros.*

Los recursos económico-financieros del Consorcio serán los siguientes:

1. El patrimonio del Consorcio.

2. Las aportaciones de los entes consorciados, que pueden ser patrimoniales o dinerarias.

3. Los ingresos procedentes de subvenciones que recibiera del Estado, Comunidad Autónoma o de cualquier otro ente público o privado.

4. Las operaciones de crédito que puedan realizarse con las entidades financieras correspondientes.

5. Los ingresos procedentes de la prestación de los servicios de gestión de los residuos urbanos objeto del Consorcio.

6. Los ingresos procedentes de las determinaciones fijadas en los Convenios de Colaboración a que se refieren los artículos 7-4.º, 7-5.º y 15.k) de los presentes Estatutos.

7. Los que se deriven de la comercialización de productos y subproductos derivados de la gestión de los residuos, inclusive de la energía producida.

8. Las aportaciones necesarias que se podrán exigir a los entes consorciados para cubrir los gastos que no hayan podido ser cubiertos mediante otros mecanismos de financiación.

9. Cualquier otro que pudiera serle atribuido.

Las operaciones de endeudamiento a largo plazo del Consorcio requerirán la autorización previa de la Administración de adscripción.

*Artículo 22.º Financiación del Consorcio.*

Las aportaciones necesarias para la constitución y el funcionamiento del Consorcio serán abonadas por los entes consorciados en proporción al porcentaje de representación en la Asamblea General, con la única excepción del compromiso que se recoge en la Disposición Transitoria Segunda, párrafo segundo, de los presentes Estatutos.

EK\CV GAO-I-2017-06079

Kontsortzioaren zerbitzuen kostua zerbitzuak erabiltzen dituzten kontsortzio-erakundeek ordainduko dute, Kontsortzioak bakoitzari eskaintzen dizkion zerbitzuen proportzioan betiere, eta Batzarrak urtero onartzen dituen tarifen arabera. Irizpide bera aplikatuko da, halaber, kontsortzio-erakunde ez diren erabiltzaileen kasuan.

*23. artikulua. Kontsortzioaren ondarea.*

1. Kontsortzioaren ondarean sartzen dira, bai erakundeak bere bizitzan zehar eskuratutako ondasunak, bai kontsortzio-erakundeek jarritako ondasun guztiak.

2. Kontsortzioaren titularitateko ondasunak jabari publikoko ondasunak eta ondare ondasunak izan daitezke. Zerbitzu publikoari atxikita egoteari uzten dioten ondasunak ondare ondasun izatera igaroko dira.

3. Bera atxikita dagoen administrazio publikoaren ondare arauek arautuko dute Kontsortzioa.

4. Hiri hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegiturak egiteko desjabetutako ondasun eta eskubideak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren jabari publikoan sartuko dira, okupatzen eta erabiltzen diren une beretik, eta kudeaketa sozietatearen erabilerari atxiki ahal izango zaizkio, azpiegituren epe erabilgarri edo bizitza baliagarriaren epe berdinaz.

5. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAUk beharrezko gestioak egingo dituzte aipatutako azpiegiturak egiteko behar diren ondasunak eskuratzearren. Azpiegitura horiek, eraiki ondoren, Kontsortzioaren ondarean sartuko dira, eta beronen inbentarioan jasoko dira zerbitzu publiko bati atxikitako jabari publikoko ondare kalifikazioaz, eta sozietate horri atxikiko zaizkio kudeaketa eta ustiapenerako, baldin eta Kontsortzioak erabakitzen ez badu behintzat Toki Araubidearen Oinarrien Legean aurreikusitako zehar kudeaketaren batera jotzea, edota azpiegituren eraikuntza obra publikorako emakida bitartez egituratzen ez bada, kontratazio publikoaren alorrean aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoarekin bat erorriz. Erakunde horiek biek Jabetzaren Erregistroan erregistratuko dituzte bere eskubideak, hala dagokionean.

*24. artikulua. Aurrekontua onartzea.*

Batzar Nagusiak urtero onartuko du aurrekontua, Kontsortzioa atxikita dagoen administrazio publikoan aplikagarria den araudian zehaztutako epe eta baldintzak betez.

Kontsortzioaren eta bere sozietate instrumentalaren aurrekontuak hura atxikita dagoen administrazioko aurrekontuen kudeaketaz arduratzen den departamentuari jakinaraziko zaizkio, hain zuzen ere aurrekontu horiek onartu baino lehen, era horretan finantza egonkortasun eta iraunkortasun helburuetan duten eragina aztertzeko.

*25. artikulua. Kontabilitatea eta kontuen fiskalizazioa.*

1. Kontsortzioak bera atxikita dagoen administrazio publikoaren arabera aplikagarria den araudian aurreikusten diren kontabilitate publikoaren printzipio eta arauei jarraikiz kontabilizatu, eratu eta emango ditu bere kontuak.

Edonola ere, urteko kontuen ikuskapena egingo da, eta egiteko hori Kontsortzioa atxikita dagoen administrazioaren kontrol organoaren ardura izango da.

Kontsortzioa aurrekontuen barnean egongo da, eta bera atxikita dagoen administrazio publikoaren kontu orokorrean ere agertu behar du, honen araudian xedatutako baldintzak betez.

2. Kontsortzioaren kontuen kanpo fiskalizazioa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokio.

*26. artikulua. Kontsortzio-erakundeen likidazioa.*

Aldian-aldian, Kontsortzioak eta kontsortzio-erakundeek erregularizatze ekonomikora joko dute, bakoitzak ematen dituen zerbitzuekin bat.

El coste de los servicios del Consorcio, será abonado por los Entes Consorciados usuarios de los mismos, en proporción a los servicios que el Consorcio preste a cada uno de ellos, en función de las tarifas que, anualmente, apruebe la Asamblea. Dicho criterio se aplicará, también, para el caso de usuarios que no reunan la condición de Ente Consorciado.

*Artículo 23.º Patrimonio del Consorcio.*

1. Constituyen el patrimonio del Consorcio tanto los bienes adquiridos por parte del ente a lo largo de su vida como todos los bienes aportados por las entidades consorciadas.

2. Los bienes de titularidad del Consorcio podrán ser bienes de dominio público y bienes patrimoniales. Los bienes que dejen de estar afectos al servicio público pasarán a ser patrimoniales.

3. El Consorcio se regirá por las normas patrimoniales de la Administración pública de adscripción.

4. Los bienes y derechos expropiados para la ejecución de infraestructuras de gestión en alta de R.U., se incorporarán al dominio público del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, desde su ocupación y uso, pudiendo adscribirse su uso a la sociedad de gestión, por plazo igual a la vida útil de las infraestructuras.

5. El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU, realizarán las gestiones necesarias para la adquisición de los bienes que resulten precisos para la ejecución de las infraestructuras mencionadas, que, una vez construidas, se incorporarán al patrimonio del Consorcio, incluyéndose en su inventario con la calificación de bienes de dominio público adscritos a un servicio público y se adscribirán a dicha sociedad para su gestión y explotación salvo que se acuerde por el Consorcio acudir a alguna de las formas de gestión indirecta previstas en la Ley de Bases de Régimen Local o bien se articule la construcción de las infraestructuras mediante concesión de obra pública de conformidad con lo previsto en la normativa aplicable en materia de contratación pública. Ambas entidades procurarán, en su caso, la inscripción en el Registro de la Propiedad de sus respectivos derechos.

*Artículo 24.º Aprobación del presupuesto.*

El presupuesto se aprobará anualmente por la Asamblea General, en los plazos y con los requisitos establecidos en la normativa aplicable en función de la Administración Pública de adscripción.

Los Presupuestos del Consorcio y de su sociedad instrumental, se pondrán en conocimiento del departamento responsable de la Gestión Presupuestaria de la administración a la que este adscrito, previamente a su aprobación a los efectos del análisis de su repercusión en los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

*Artículo 25.º Contabilidad y fiscalización de cuentas.*

1. El Consorcio contabilizará, formará y rendirá sus cuentas conforme a los principios y normas de contabilidad pública, previstas en la normativa aplicable en función de la Administración Pública de adscripción.

En todo caso se llevará a cabo una auditoría de las cuentas anuales que será responsabilidad del órgano de control de la Administración a la que se encuentre adcsrito.

El Consorcio formará parte de los presupuestos y se incluirá en la cuenta general de la Administración Pública de adcsripción en los términos previstos en su normativa.

2. La fiscalización externa de las Cuentas del Consorcio le corresponderá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

*Artículo 26.º Liquidación con Entes Consorciados.*

Periódicamente se realizará entre el Consorcio y los entes consorciados, la regularización económica de acuerdo a los servicios que cada uno preste.

EK\CV GAO-I-2017-06079

*27. artikulua. Aurrekontuaren likidazioa.*

Ekitaldiko emaitzak saldo positiborik baldin badu, hau jarduera finantzatzera eta Kontsortzioak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzera bideratuko da, ez beste ezertara.

Edonola ere, tarifen zenbatekoek kudeaketaren kostu errealetara egokituta egon behar dute.

II. ATALA. Zerga erregimena

*28. artikulua. Tarifa erregimena.*

1. Kontsortzioak urtero finkatuko ditu eskaintzen dituen zerbitzuek izango dituzten tarifak. Batzar Nagusiak onartuko du tarifa, Gipuzkoako Foru Aldundiak tarifaren nahikotasunari eta inspirazio printzipio dituenak betetzeari buruz egindako derrigorrezko txostenaren ondotik. Era berean, tarifaren onarpena tramitatzeko, Kontsortzioaren kontu-hartzailetzaren txostena beharko da.

2. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak onartuko duen tarifaren helburua Kontsortzioan parte hartzen duten mankomunitateetatik datozen hiri hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko zerbitzuak aurrera ateratzea da. Izan ere mankomunitate guztiak Kontsortzioaren bazkideak dira, eta hau sortzearen arrazoia, hain justu ere, mankomunitateei kudeaketa zerbitzua eskaintzea da, betiere iraunkortasunaren ikuspegitik joz, Hiri Hondakinetan dauden baliabideei ahalik eta probetxurik handiena ateratzearren Batasunean ezarritako hierarkiarekin bat, eta lehentasuna emanez prebentzio ekintzei eta birziklatze eta balorizazio jarduerak ere garatuz, ingurumenaren babes mailarik handienak lortzeko bidean.

Zerbitzuaren guztirako kostuak zehaztuko ditu Kontsortzioak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak, artikulu honetako 3. zenbakian jasota dauden printzipioekin bat.

Tarifaren kudeaketa, likidazioa eta kobrantza sozietateak egingo du, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk alegia, Kontsortzioaren bitarteko propio den aldetik. Diru-bilketa exekutiboa Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak egingo du.

Zerbitzuaren hartzaile den mankomunitateak ordainduko du prezioa, kasuan kasuko ordenantzan arautzen diren baldintzetan eta epeetan. Epe hori hogeita hamar egunekoa da, fakturaren datatik kontatzen hasita. Mankomunitateak bere aurrekontuan jaso behar du obligazio hauei aurre egin ahal izateko behar duen kopurua. Ezarrita dagoen epean ez bada tarifaren prezioa ordaintzen, apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauak 15. artikuluan aurreikusten dituen jarduerak jarri ahal izango dira abian. Diru-ekarpen horiek derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketa izaera izango dute, eragin guztietarako.

Kontsortzioak, ondorio hauetarako, 7/2008 Foru Arauak ezarritakoaren babesean, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAUren kobrantza eskubideak erreklamatu ahal izango dizkie kontsortzio-erakundeei.

Ordainketa egiteko ezarrita dagoen epea igarotzen bada kontsortzio-erakundeak ordaindu beharrekoa ordaintzeke, Kontsortzioko presidenteak Foru Aldundiari eskatu ahal izango dio atxikipena egitea eta ordaintzeke dauden kuotak ordaintzea, aipatutako obligazioak bete ez dituen kontsortzio-erakundearen alde, hots, kontzeptua dena dela udal zordunaren alde likidatzeko diren kopuruen kargura. Horretarako, zorpekoaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta honetan adierazi ordaintzeke dagoen zenbatekoa, honen sorburua, ordaintzeke dagoena dagokion mankomunitatea eta honetan sartzen diren udalak.

Era berean, Kontsortzioaren presidenteak kontsortzio-erakundeen aurrekontuak inpugnatu ahal izango ditu, hauetan Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAUri egin beharreko ekarpenei dagokien kontu-saila aurreikusten ez bada.

*Artículo 27.º Liquidación del presupuesto.*

Los eventuales saldos positivos que presente el resultado del ejercicio se dedicarán exclusivamente a la financiación de la actividad y a la mejora de los servicios prestados por el Consorcio.

En cualquier caso, el objetivo de las tarifas debe ser ajustar el importe de las mismas al costo real de la gestión.

SECCIÓN II. Régimen tributario

*Artículo 28.º Régimen de tarifas.*

1. El Consorcio establecerá anualmente las tarifas correspondientes a los diferentes servicios prestados. La tarifa será aprobada por la Asamblea General, previo informe preceptivo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sobre la suficiencia de la tarifa y cumplimiento de los principios inspiradores de la misma. Asimismo, para tramitar su aprobación, se requerirá informe de la intervención del Consorcio.

2. El objeto de la tarifa a aprobar por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, es la realización de los servicios de gestión en alta de los residuos urbanos, procedentes de las Mancomunidades partícipes del Consorcio, todas ellas, socias del Consorcio, constituido, precisamente, para prestarles este servicio de gestión, orientado a la sostenibilidad para aprovechar al máximo, los recursos contenidos en los R.U., de acuerdo con la jerarquía comunitaria, de opciones de gestión de los residuos, desarrollando prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización, con los máximos niveles de protección medioambiental.

Las tarifas de los servicios prestados por el Consorcio, vendrá determinado por el coste total del servicio, de acuerdo con los principios que figuran en el número 3 de este artículo.

La gestión, liquidación y cobro de la tarifa lo realizará la sociedad Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU como medio propio del Consorcio. La recaudación ejecutiva se realizará por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

El precio deberá ser abonado por la Mancomunidad destinataria del servicio, en las condiciones y plazos que se regulen en la ordenanza correspondiente, y que será de treinta días, contados a partir de la fecha factura. La Mancomunidad se obliga a consignar presupuestariamente la cantidad precisa para hacer frente a estas obligaciones. El incumplimiento del pago del precio de la tarifa en el plazo establecido, podrá dar lugar a las actuaciones previstas en el art. 15 de la NF 6/2007, de 10 de abril. Tales aportaciones económicas, tendrán a todos los efectos, la consideración de pagos obligatorios y de carácter preferente.

A estos efectos el Consorcio podrá reclamar los derechos de cobro de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU a los entes consorciados al amparo de lo establecido en la Norma Foral 7/2008.

Una vez transcurrido el plazo establecido para efectuar el abono, sin que por el Ente Consorciado se haya hecho efectivo el débito, el Presidente del Consorcio, podrá solicitar de la Diputación Foral, la retención y abono de las cuotas pendientes con cargo a las cantidades que por cualquier concepto fueran liquidables a favor del Ayuntamiento deudor, integrante en el Ente Consorciado que incumple las obligaciones señaladas, debiendo acompañarse la certificación de descubierto, en la que se determinará el importe del impago, su origen, la Mancomunidad de la que procede el impago, los Ayuntamientos que la integran.

Asimismo, el Presidente del Consorcio, podrá impugnar los presupuestos de los Entes Consorciados, cuando en éstos no estuviera prevista la partida correspondiente a las aportaciones a efectuar a Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU.

EK\CV GAO-I-2017-06079

Azkenik, obligazioen urratze larria gertatzen bada, kalteordaina ezarri ahal izango da. Honetan, urraketa gertatu zen datatik aurrera sortzen diren interesak, hilean hilekoak, ordaintzea ere sartuko dira, diruaren legezko interes tasaz kalkulatuta betiere, eta honetarako ez da inolako errekerimendu beharrik izango.

3. Batzarrak finkatuko du eskainitako zerbitzuei dagokien tarifa, eta horretarako printzipioak honakoak izango dira:

— Tarifa bakarraren printzipioa; gipuzkoar guztiontzat zerbitzuen kostu berdintasuna bermatuko da, eta hondakina sortzen den lekutik tratamendu-zentroraino dagoen distantzia dela-eta kostuan bereizketarik izan dadin saihestuko da batez ere.

— Tarifaren legezkotasun printzipioa; zerbitzuaren kostu osoa estaltzea bermatuko da, eta saihestu egingo da, edonola ere, horri diruz laguntzea, hondakinen arloan ezarrita dauden europar printzipioen aplikaziora joz horretarako.

— Erantzukizun printzipioa proiektuaren finantzaketarako; horrela, prezioak bermatu egingo du epe luzeko inbertsioak egitetik eratortzen den finantza zorrari erantzutea, eta Kontsortzioak behar besteko finantza gaitasuna edukiko duela inbertsioak kanpoko laguntzarik gabe birjarri ahal izateko. Eta printzipio hauekin bateragarria den neurrian, azpiegituren epe erabilgarrian zehar tarifa egonkor mantentzeko ahalegina egingo da. Finantza zama modu homogeneoan egotziko zaio tarifari, dagozkion azpiegituren iraunaldi erabilgarri osoan zehar.

— Tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa; zerbitzuaren kostua murriztea bultzatuko da, azken tratamendurako aukeraren aurrean berrerabiltzeak eta konpostatzeak duten mailaren arabera.

4. Era berean, hiri hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko zerbitzuak eskaintzeagatiko tarifak jaulkiko zaizkie kontsortzio-erakundeez bestelako erabiltzaileei, bai publikoei bai pribatuei. Tarifaren araubide juridikoko irizpideak aurreko paragrafoetan adierazitakoak berak izango dira.

III. ATALA. Kontratazio erregimena

*29. artikulua. Kontratazio erregimena.*

Sektore publikoko Kontratuei buruzko Legeak eta arlo honetan indarrean dauden bestelako araudiek erregulatuko dituzte Kontsortzioak egiten dituen kontratuak.

V. KAPITULUA

KOORDINAZIO INSTITUZIONALA

*30. artikulua. Jarraipen eta Koordinazio Batzordeak.*

Batzarrak egoki iritziz gero, Kontsortzioaren eta kontsortzio-erakundeen jardueren koordinazio, jarraipen eta kontrolerako batzordeak eratuko dira.

Batzarrak berak onartuko ditu horien eraketa, osaketa, eta funtzionamendua arautzeko izango duten Barne Erregimeneko Erregelamendua.

VI. KAPITULUA

KONTSORTZIOA HANDITZEA, KONTSORTZIOTIK IRTETEA ETA KONTSORTZIOA DESEGITEA

*31. artikulua. Kontsortzioa handitzea.*

(edukirik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2009ko irailaren 21ean emandako 588/09 epaiaren ondorioz).

Por último, el incumplimiento grave de obligaciones, podrá ir acompañada de las correspondientes indemnizaciones de daños y perjuicios, que incluirán el pago de intereses calculados al tipo de interés legal del dinero, con carácter mensual, que se devenguen, desde la fecha que se produjo el incumplimiento, sin necesidad de requerimiento.

3. La Asamblea fijará el costo de la tarifa correspondiente a los servicios prestados aplicando los siguientes principios:

— Principio de tarifa única, garantizando la igualdad del costo de los servicios para todos los guipuzcoanos, y en particular evitando la discriminación del coste por la distancia del lugar de generación del residuo con el centro de tratamiento.

— Principio de legalidad de la tarifa, garantizando que cubra todo el costo del servicio, y evitando en cualquier caso la subvención del mismo en aplicación de los principios europeos en materia de residuos.

— Principio de responsabilidad frente a la financiación del proyecto, de forma que el precio garantice el servicio de la deuda financiera derivada de la ejecución de inversiones a largo plazo, garantizando la suficiencia financiera del Consorcio para afrontar sin apoyos externos la reposición de inversiones, y en la medida en que sea compatible con dichos principios, procurando la estabilidad de la tarifa en el período de vida útil de las infraestructuras. La carga financiera se imputará a la tarifa de forma homogénea durante el período de vida de las infraestructuras a las que se refiere.

— Principio de discriminación positiva de la tarifa, potenciando una reducción del coste del servicio en función del grado de reutilización, compostaje, frente al tratamiento final.

4. Asimismo, se emitirán tarifas por prestación de servicios de gestión en alta de R.U. a usuarios distintos de los entes consorciados bien sean usuarios públicos o privados. Los criterios de régimen jurídico de la tarifa será el indicado en párrafos precedentes.

SECCIÓN III. Régimen de contratación

*Artículo 29.º Régimen de contratación.*

Los contratos celebrados por el Consorcio se regirán por la Ley de Contratos del sector público y demás normativa vigente en la materia.

CAPÍTULO V

COORDINACIÓN INSTITUCIONAL

*Artículo 30.º Comisiones de Seguimiento y Coordinación.*

Si la asamblea lo estimara procedente, se constituirán Comisiones para la coordinación, seguimiento y control de las actividades del Consorcio y los entes consorciados.

Se aprobará por la Asamblea su constitución, composición, así como el Reglamento de Régimen Interno que regulará el funcionamiento de las mismas.

CAPÍTULO VI

AMPLIACIÓN, SEPARACIÓN Y DISOLUCIÓN DEL CONSORCIO

*Artículo 31.º Ampliación del Consorcio.*

(sin contenido como consecuencia de la Sentencia 588/09, de 21 de septiembre de 2009, del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco).

EK\CV GAO-I-2017-06079

*32. artikulua. Kontsortziotik irtetea.*

1. Kontsortzio-erakunde batek, bere borondatez Kontsortzioa uzteko, erabakia modu baliozko batez hartu eta, ondoren, Kontsortzioari aditzera eman beharko dio. Kontsortziotik irteteko, estatutuen aldaketarako ezarritako erregelak bete beharko dira. Tramitazioan zehar, erakunde bien arteko harreman ekonomikoak likidatuko dira; horretarako prozedura honakoa izango da:

a) Kontsortzioaren eta kontsortzio-erakundearen arteko egoera ekonomikoa erregularizatuko da. Irteteko kuota finkatzeko banaketa-irizpidea Batzar Nagusian duen ordezkaritza-ehunekoa izango da.

Kontsortzio-erakundean zerbitzutik bereizten direnak udalerriak baldin badira, irteteko kuota finkatzeko banaketa-irizpidea biztanleria izango da.

b) Kontsortzio-erakundeak ordainduko ditu irteteak eragiten dituen gastuak, Kontsortzioak zordundutako pasiboan bere kargura den zatiarekin batera. Honetaz gain, ordaindu egin beharko du irtete horrek beste kontsortzio-erakundeei sorrarazten dien gainkostuaren kapitalizazioaren balioa; gainkostu hori kalkulatzeko, eraikita edo eraikitze prozesuan dauden azpiegituren epe erabilgarria hartuko da kontuan.

Kontsortzioak erabakiko du nola eta zer baldintzatan ordainduko den irtete-kuota, kuotaren emaitza positiboa bada; bai eta uzteko eskubidea erabiltzen duenari dagokion zorra nola eta zer baldintzatan ordainduko den ere, kuotaren emaitza negatiboa bada.

